

# Tolasaka Haurren Hiria



# Aurkibidea

02

Tolosako Haurren Hiria  
Zer da?

03

Haurren Kontseilua  
Partaideak

04

2021-2022 ikasturtea  
Aztergaia

05

Kontseiluaren saioak  
Lehen saioa

07



Kontseiluaren saioak  
Bigarren saioa

09

Kontseiluaren saioak  
Hirugarren saioa

11

Harremanetarako  
kontaktua







## Zer da "Tolasaka Haurren Hiria"?

“

Cure hiriak ez ditu kontuan hartzen haurren beharrak”

Francesco Tonucci

Hausnarketa honetatik abiatuta Francesco Tonucci pedagogo eta marrazkilaria italiarrak, "Frato" ezizenez ezagututa, "Haurren Hiria" proiektua abiatu zuen.

Haurren beharretara egokitzen den hiria gauzatzeko pausu zehatzak ematen dira, haurrekin elkarlanean. Gaur egun Europa eta Hego Amerikako 200 udalerrri baino gehiagotan lantzen ari den proiektua da.

## Partaideak

Haurren iritzia kontuan hartzeko helburuarekin, 8-12 urte bitarteko ordezkariak izendatzen dira.

Tolosako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleen ordezkariak "Haurren Kontseilua"ren parte izaten dira Herrikide, Laskorain eta Samaniego ikastetxeekin elkarlanean. "Haurren Kontseilua" kultur etxean elkartzen da ohikoan.

2021-2022 ikasturtean saio guztiak burbuila taldeak errespetatuz egin dira. Lan-metodologia bizi dugun osasun egoerara egokitu da Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasle guztiei aurrez aurreko saioak eskainiz.

Horrela, 2020-2021 ikasturtean Haurren Hirian parte hartu zuten ikasleekin jarraipena egin da, pandemia egoeraren araberako lan-metodologia jarraituz. Ikasgela bakoitzean bi saio egin dira. Lehen saioa 2021eko azaroan burutu da, eta bigarrena 2022ko urtarrilean.

Bi saio hauetan gelako kide guztiek parte hartu dute, 250 haur inguru. Ondoren, ikastetxe bakoitzeko ordezkariak izendatu dira eta haiekin hirugarren saioa egin da, 2022ko martxoan.

Saio honetan ikastetxe ezberdinetan jasotako ondorioak aztertu eta udalerrriaren egoera hobetzeko proposamenak zehaztu dira.

2022ko maiatzean ospatuko den "Mintza Txokoan" haurren hitza udal ordezkariengana iritsiko da, udalerrriaren egoera hobetzeko elkarlana bermatuz.

### *Haurren Kontseilua*

Tolosako Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako 250 haur inguru.

### *Haur ordezkariak*

Hiru ikastetxetako 24 haur ordezkari aurkeztu dira, bolondres gisa.

HERRIKIDE IKASTETXEA  
LASKORAIN IKASTOLA  
FELIX SAMANIEGO IKASTETXEA





## Aztergaia

### Herriko azpi-egiturak haurrentzat

Haurren beharretatik abiatuta, Tolosan eskaintzen diren baliabideak eta azpi-egiturak aztertu dira.

Etorkizunera begira haurrentzat interesgarriak izan daitezkeen proposamenak jasotzea izan da helburua.

2021-2022 ikasturtean Tolosako Haurren Hiria programaren 8. ekitaldia ospatu dugu.

Jarraian, orain arte landutako gaiak:

**2014-2015: Kaleak jolasleku gisa.**

2015-2016: Aisialdirako ekintzak.

**2016-2017: Herriko baliabideak.**

2017-2018: Belaunaldien arteko harremana.

**2018-2019: Mugikortasuna.**

2019-2020: Tolosa, denon herria.

**2020-2021: Haurren sentimenduak mintzagai.**

2021-2022: Herriko azpi-egiturak haurrentzat.



## Haurren kontseiluaren 1. saioa

Tolosan haurrentzat aurki daitezkeen baliabide eta azpiegiturak aztertu ondoren, gure beharrak asetzeko proposamen berriak egin ditugu.

Egun erabiltzen ditugun baliabideak aztertu ditugu: kultur etxea, liburutegiak, haurren agenda, Leidor aretoa, Topic museoa, musika eskola... Jarraian, gure eguneroko ohiturak zerrendatu ditugu, ditugun beharrak zehaztuz.

Nork bere beharrak zehaztu ondoren, gainontzeko gelakideekin solasaldi bat egin dugu, ondorioak partekatzeko helburuarekin.

Lehen saioa 2021eko azaroaren 23, 25 eta 26an burutu da Tolosako 10 gela ezberdinetan. Beraz, 250 haur ingururen ekarpenak jaso dira.

Haurren Kontseiluaren parte diren haur guztien ekarpenak zerrenda batean uztartu dira, haurrek dituzten beharrak asetzeko baliabideak eta azpi-egiturak proposatuz. Horrela, barne zein kanpoko ekintzen beharra ondorioztatu da.

Bigarren saioan barruko ekintzak uztatzen dituen haurren espazioa diseinatzea adostu da. Jarraian, barne zein kanpoko ekintzen zerrenda.

### Haurren beharrak

#### Kanpoko baliabideak

- Ume handien parkea: tirolinak, jaitsiera arrapalak, parkour, landareen labirintoa.
- Aukera berriak: laser tag, paintball, kartinga, izotz patinaje pista, ohe elastikoak, barrakak.
- Kirolak: Gimnasioa, boleyball kantxa, futbol, saskibaloia eta eskubaloia kantxa estaliak, igerileku klimatizatua, parke akuatikoa.
- Txakur parkea.
- Komun publiko gehiago.

#### Barruko baliabideak

- Umeen eraikina: jolasgunea, eskulanak egiteko tokia, bideo jokoan lekua, irakurtzeko eta ikasteko gunea tabernarekin, lasai egoteko lekua, antzerkia, txotxongilo aretoa, bolera.
- Handien txikiparka bolen pistinarekin.
- Haur topagunea.
- Teknologia eta informatika gunea
- Arte tailerrak antolatzea
- Amarotzen liburutegia.



1 saioa



## Haurren kontseiluaren 2. saioa

Gure eguneroko ohiturak aztertu ondoren, astean zehar edo asteburuetan ditugun beharrak asetzen dituen espazioa diseinatu dugu.

Gela bakoitzean 5-6 talde antolatu dira eta talde bakoitzari haurren espazioa sortzeko materiala eskaini zaio: kartulinak, txantiloiak, margoak, etabar.

Lehen saioan identifikatu genituen ekintzak aurrera eramateko baliabideen txantiloiak eskuratu zaizkio talde bakoitzari: mahaiak eta aulkiak, jolasak, antzerki tailerra, sukaldaritza tailerra, ordengailuak, baratza, etabar.

Bigarren saioa 2022ko urtarrilaren 25, 27 eta 28an burutu da Tolosako 10 gela ezberdinetan. Beraz, 250 haur ingururen maketak jaso dira.

Maketa guztiak ezberdinak izan arren, hiru eremu mota errepikatzen zirela ondorioztatu dugu: eremu lasaia, jolasteko eremua eta kanpo-eremua.

Ondorioak zerrendatu dira haur ordezkariekin aztertzeko helburuarekin. Horrela, Tolosako haurren beharrak uztartzen dituen maketa bateratua definitu da alkateari eta udal ordezkariari aurkezteko asmoarekin.



### *Eremu lasaia*

Lagunekin egoteko aukera eguraldi txarra egiten duen egunetan, musika entzun, pelikulak ikusi, eta astean zehar etxeko lanak egin.



### *Jolasteko eremua*

Mahai jolas ezberdinak ezagutzeko aukera, ordenagailuarekin edo kontsolarekin jolastu, baloiak eta koltxonetak psikomotrizitatearen txokotan, mozorroak antzerkiaren txokotan eta sukaldaritza tailerra




### *Kanpoko eremua*

Baratzen trebatzeko ikastaroak, kanpoan jolasteko futbol eta saskibaloia kantzak.



08 ORRIALDEA

2 saioa





## Haur ordezkariekin 3. saioa

Bigarren saioa egin ondoren, haurren ordezkariak izendatu ziren. Horrela, Haurren Kontseiluaren parte diren 250 haurren artean, 24 ordezkari zehaztu ziren.

Hezitzaileak ikastetxe bakoitzean bertaratu ziren 2022ko martxoaren 10ean, Herrikide ikastetxean, Laskorain ikastolan eta Felix Samaniego ikastetxean saio bat bideratuz.

Haurrekin Mintza Txokoan aurketzuko den eredu bateratua adostu zen, haur guztien ekarpenak kontuan harturik. Familiei zuzendutako saioan, eredu bateratua osatzeko ekarpenak jasotzea aurreikusten da gurasoen eskutik.

Barruko eremua diseinatu genuen zerekin batzuk  
kin, beste ludoteka batzuk ikusi genituguen, eta  
ariketa praktiko bat egin genuen taldeko, elemen  
tu batzuk aukeratu genituen, ehre baratz bat  
jarrigenuen boloak tacer bat pakerre PPS 5  
puf bat inakurtzeko gunea, taldeko egin genuen  
lan hau, Errespetu gune bat da lagun berriak  
egiteko  
Beste ludoteka batzuk ikusi genituguen  
ideiak hartzeko!!!





3 saioa



HAURREN  
ESPAZIOA

## *Harremanetarako kontaktua*

Proiektu honen inguruan informazio gehiago jaso nahi  
izanez gero, gurekin harremanetan jarri mesedez!  
Eskerrik asko zuen arretagatik!!

[tolosakohaurrenhiria@gmail.com](mailto:tolosakohaurrenhiria@gmail.com)

